

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Behar ditugun lehengaiak saltzen dituzten hornitzaileei erosiko dizkiegu, lehengai hauek proiektua martxan jarri ahala beharko ditugu, lehenengo momentutik produktua ekoiztu eta gure enpresa aurrera eraman nahi dugulako. Bestalde, eskuratu behar ditugun baliabideetatik baliabide garrantzitsuenak eta garestienak bera da, txipa, azken finean txipa detektatzen duelako pertsonak eskuarekin egiten dituen mugimendu guztiak.

BALIABIDEAK:

- **BALIABIDE FISIKOAK:** 2 garaje
- **BALIABIDE INTELEKTUALAK:** gure proiektuaren patentea
- **GIZA BALIABIDEAK:** langile bat, baita gu ere.
- **FINANTZA BALIABIDEAK:** Bakoitzak jarriko duen hasierako kapitala 2.500 eurokoa da pertsona, beraz 4 pertsona izanda 10.000 euro dira guztira. Gure familia eta lagunek 90.000 euro inbertituko dute guztira gure enpresan. Gure gastuaren aurreikuspena lehenengo hilabetean 73.000 eurokoa da eta geratzen diren 27.000 euroak euskarri moduan edukiko ditugu.

